

**2017EKO ABENDUAREN 27A, 3096 ZENBAKIA, LAUDIOKO UDALEKO ALKATE-UDALBURUAREN DEKRETUA.****AMATASUN-BAIMENAZ DAGOEN TITULARRAREN ORDEZKAPENA EGITEKO, GAZTERIA TEKNIKARI BAT HAUTZATZEKO PROZESUAREN OINARRIAK.****1.--** Laudioko Lanbide bulegoan eskaintza orokorra aurkeztea, profil honekin:

- Goi maila, lizentziatura edo graduiko ikastetako izatea.
- 3. hizkuntza eskakizuna edo EGA izatea.

Lehenetsiko da:

- Hobe gazteriarekin zerikusia duten programetan lan egin izan edota lanpostuan gauzatu beharreko zereginetako formazio egokia izatea. Ezagutza izatea hezkuntza formalean eta ez-formalean (elkartegintza sarea, gizarte mugimenduak, hezkuntza eta asialdi arloko eragileak,...) eta gazteriaren arloan ikasketa espezifikoak izatea.
- Administrazioaren eskumenak eta funtzionamendua ezagutzea.

Funtzioak eta egin beharreko zereginak:

- Diseinatzea gazteriari lotutako programa, ekitaldi eta zerbitzuen planifikazioa.
- Aholkuak ematea gazteriaren gaitan udal arloei.
- Zaintza udalerriko I. Gazteriaren Plana betetzen dela.
- Diseinatzea gazteriaren gaian sentsibilizazio eta prestakuntza ekintzak.
- Sustatzea gazteriaren ikuspegiaren sarrera udal politiketan, programetan eta ekintzetan.
- Jarraipena eta ebaluazioa egitea Udalak gai honi loturik dituen programetan eta parte-hartzeetan.
- Proposatzea, diseinatzea eta egitea gazteriarekin zerikusia duten ikerketak.
- Jarduerak planifikatzea gizartearen arlo guztietan gazteriaren parte-hartzea errazteko.
- Laguntzak eta diru-laguntzak izapidetzea programak, jarduerak, zerbitzuak, eta abar egin eta abian jartzeko.
- Sustatzea eta laguntzea erakunde programen garapenean (Eusko Jaurlaritza, irabazi asmorik gabeko erakundeak eta elkarteak).
- Koordinazio bileretara joatea Udaleko eta Euskal Herriko beste udal langile teknikari batzuekin.
- Udal barruko eta kanpoko koordinazioa; beharrezkoa balitz, lan egutegia egokitu behar du programatzen diren ekitaldi edota bileretara.
- Nagusi hierarkikoek agintzen dizkieten antzeko eginkizun osagarri guztiak egitea. Eginkizun horiek lanpostuaren xedearekin erlazionaturik egon beharko dute.



2.- Aurre hautaketa Lanbide bulegoak egin ondoren, kontratatu beharreko pertsona hautatzeko prozedura hauxe izango da:

Aurre hautatu diren izangaiek aurkeztu beharko dute Udaletxeko sarrera-erregistroan barozaiorako alegatu nahi dituzten merezimenduak azalduko duen currículum vitae. Balioetsi beharreko merezimenduak hauek izango dira:

- Funtzionario edo lan-kontratatu gisa, Administrazio Publikoan egin dituen zerbitzuak:
 - Gazteriako Teknikari gisa: 0,25 puntu zerbitzuko hilabete bakoitzeko, gehienez 4 puntu.
 - Kultura, Berdintasuna, Gizarte Ongizate edo Euskara Arloetan Teknikari gisa: 0,15 puntu zerbitzuko hilabete bakoitzeko, gehienez 2 puntu.
- Azken 5 urteotan egin diren ikastaroak, zerikusia badute postuaren funtzio eta, zehazki, hauekin: gazterian, euskal elkartegintza sarea, gizarte mugimenduak, hezkuntza eta asialdi arloko eragileak. Halaber, pertsona gazteen eta, oro har, gizatearen errealitateari buruzko ikastaroak
 - 20 ordu arteko ikastaroak: 0,05 puntu.
 - 21 - 40 ordu arteko ikastaroak: 0,10 puntu.
 - 41 - 80 ordu arteko ikastaroak: 0,20 puntu.
 - 81 - 100 ordu arteko ikastaroak: 0,50 puntu.
 - 100 ordu baino gehiagoko ikastaroak: puntu 1.
 - 200 ordu baino gehiagoko ikastaroak: 2 puntu.

Horiek balioetsi ahal izateko: ikastaroak egin izanaren dokumentu egiaztagiriek jasorazita ekarri behar dute orduen zenbatekoa eta IVAP edo aitortutako zentro ofizialak emandakoak izatea. Merezimendu hori balioetsiko da gehienez 5 puntu arte.

- Elkarrizketa Gehienez ere 3 puntu.

3.- Bitarteko funtzionario izendatuko den pertsonaren behin betiko hautatzea egingo duen Batzordea honela osatuko da:

- Hezkuntza, Berdintasuna eta Gazteria Arloko arduraduna. Ordezkoa: Herriko Etxeko Idazkaria.
- Gizarte Ongizate, Lankidetzeta eta Osasun Arloko arduraduna. Ordezkoa: Garapen Agentziako arduraduna.
- Funtzio Publikoa eta Lan Harreman Arloko burua, idazkari gisa. Ordezkoa: Hizkuntza Normalkuntzarako teknikaria.



Mezimenduetan atera diren puntuazioen baturak emango du behin betiko sailkapenaren hurrenkera. Batzordeak proposatuko du izendatzea puntuazio handiena lortu duen hautagaia.

Berdinketa kasuan, lehenetsiko da eskarmentuan puntuaziorik handiena lortu duen hautagaia. Hala berdinketa ezin bada ebatzi, ondoren lehenetsiko da hezkuntza eta gazteria gaietako formazio espezikoan puntuazio handiena duena eta, azkenik, zozketaz.

Izangaiek, behin betiko emaitzen jakinarazpenetik, 10 eguneko epea izango dute alegazioak egiteko Hautaketa Batzordearen aurreran. Aipatu den epe hori amaitu ondoren, Batzordeak puntuazio handiena lortu duen izangaia izendatzeko behin betiko proposamena egingo dio Alkatetzari.

Laudio, 2017eko abenduaren 27a.